

Intxaurrondo

Lau urte Amabirjinarekin

hilaren 14an, Marrutxipi elkarteak antolatuta, Karmenak egingo dira Intxaurrondoko inguruotan.

Aipatu elkarte gastronomikoak 33 urte bete ditu aurten. Marrutxipiko Karmenak, berriaz, lau urte.

Aurten hiru egunen buruan mota guztietako ospakizunak egingo dira.

Koldobika Ormazabal Gurutzaga feston antolaketan jardun duen bizilagunak adierazi digunez, Marrutxipiko festok apalak dira, bizilagunen artean gozatzeko modukoak.

"Aurten lehendabiziko al-



diz, futbolin txapelketa egongo da" diosku Koldobika Ormazabalek.

Beste ospakizunik ere nabarmendu nahi izan du Ormazabalek. "Batetik, igan-

dean Thamesis konpartsa ibiliko da auzoan. Aipagarria da, aurtengo ihauterietan konpartsa horrek lehen saria eskuratu zuela. Horrez gain, egun horretan, lore eskaintza egingo diogu Karmengo Amari" adierazi digu Ormazabalek.

Eskaintza berezia izaten da. Ategorrietako San Juan batalatzaile elizako apaiza Jose Maria Garmendia joango zaie ur bedeinkatua eta guzti. "Lore eskaintza egin ohi diogu Karmengo Amari. Ostean txistulariak eta dantza emanaldia egon ohi da" dio Koldobikak.

On dagizuela guztiei.

EGITARAUUA

Ostirala 14

21.00 Mus txapelketa

Larunbata 15

09.00etatik aurrera: Marrutxipi elkartearen bigarren graffiti lehiaketa

11.00 Lehen Futbolin txapelketa

12.30 Bigarren patata tortila lehiaketa

16.00 Haur jolasak: buruhandiak, lapiko jokoak, irin jokoak, soka-tira, txokolate jana.

18.30 Auzoko hildakoen aldeko meza, Ategorrietako San Juan bataiatzailearen elizan

20.30 Afari herrikoia elkartearen

Igandea 16

08.00 Diana txistulariekin

09.00 Bandera igoera. Andra Mariari lore eskaintza. Ohorezko salbea.

Marrutxipiko plazatzooan

11.00 Marrutxipiko Elkartearen Igeltola-pote jokoaren bigarren txapelketa

16.00 Margo eta marrazki tailerra txo-

kolatearekin

18.00 Thamesis konpartsa emanaldia

19:00 Sardina jana herrikoia

24.00 Bandera jaitziera



PIZZBURGUER

PIZZAK
HANBURGESAK
TXAKUR BEROAK
OTARTEKOAK
SANDWITXAK

WANDA

ENTZALADAK
ERRAZIOAK
MENUAK
GOZOAK
EDARIAK

Jose Elosegui 124
943 40 46 86

- Jarraiko ordutegia 13.00etatik 23.30ak arte.
- Kazolaxo bat, kafea edola garagardoa haritzeko Urbia eta QQTn kopa.
- Ordubetatik gaureraino jarraian.

URBIA QQT

Portu kalea 7, Donostia
Tel.: 943-425782

etxekalte

NARRIKA

taberna

Narrika 16
Tfnoa.: [943] 427327